

Frantziaren zi(b)(n)ismoa

Esan ohi da inor ez dela *herritar* jaiotzen. Izan ere, egungo gizarte modernoetan *herritar* izatea ez da erraza; askotan, eskuraezineko pribilegioa ere bada, denok dakigunez. Herritar estatusa, berez, egitura politiko jakin bati loturik doa, eta herrialde aurreratuenen artean, Frantzia hartu izan da eredutzat, herritartasuna bizilagun guztiei ematea izan baita frantziar estatuaren bilakaera historikoaren funtsa. Eta horretaz harro agertu dira frantziarrak eta Frantziaren miresleak. Hortaz, Frantziaren *savoir faire* zibikoa goraiatu da sarritan, *herritarren komunitatea* eraikitzen saiatu omen delako; hots, albo batera utzi dituelako herritarrak bereizten dituzten bestelako lotura etnikoak, kulturalak, erlijiozkoak, eta abar. Oraindik ez da guztiz itzali ikasle nerabe islamdarren beloaren auziak piztu zuen eztabaidaren oihartzuna. Hezkuntza-sisteman erlijiozko ikurren erabilerari debekua laikotasunaren defendatzaileen ikur ere bihurtu zen eta, une honetan, hartutako erabakiak eragindako zauriak sendatu gabe dirauela ematen du.

Etorkin oldeari eutsi guran, berriro ere, frantziar herritartasuna izan da hizpide egunotan, hango Parlamentuak ebatzi berri duenaren harira. Batetik, etorkinei DNA proba egitea erabaki da beste etorkinen batekiko ahaidetasuna frogatu ahal izateko, eta beraz, herritartasuna lortu ahal izateko. Hortaz, biologiaren menpe jarriko dute herritartasuna. Ez ziren, ba, frantziarrak odolean oinarritutako loturei muzin egiten ziotenak?



INIGO AZKONA

Bestetik, frantsesez ondo moldatzen direla frogatu beharko dute. Hau aspaldiko kontua da. 1990eko hamarkadan, adibidez, Frantziako Naziotasun Batzordeak ebatzi zuen frantsesez eskolatua egotea nahikoa baldintza zela frantziar herritartasuna lortzeko. Eta ez dugu aipatuko frantsesaz besteko hizkuntzek mendetan jaso duten bazterketaz. Nork esan zuen herrialde zibiko *puruenetan* ere hizkuntza bat *naazio-hizkuntza* izendatzen dela eta harexeri egiten zaiola etengabeko gorazarre? Hortaz, berezitasun kulturalak, erlijiozkoak, etnikoak, dena delakoa, albo batera utzi behar dira... frantziar kulturari dagozkionak izan ezik, jakina.

Hirugarrenik, Errepublikaren balioekin bat egiten dutela frogatu behar dute. Inork ez daki zehatz-mehatz zeintzuk diren balio horiek, baina, lehenik eta behin, administrazioaren arbitraritateari lekua uzten zaiola zalantzarik ez dago. Bigarrenik, zer esanik ez, jazarpen ideologikoa eta politikoa erabiltzeko aukera paregabea eskaini lezake. Eman dezagun laikotasuna hartzen dela Errepublikaren balio gisa. Paperen zain dagoela, nor ausartuko da, adibidez,

islamdarra dela ofizialki aitortzera?

Barregarri geratu dira Frantziaren liberalismoa eta lotura zibikoak.

Are gehiago, uste dut frantziar batzuen ustezko zibismoaren atzean, zinismoa baino ez dagoela. Eta, berriro ere, gogoetarako gaia utzi digute hartutako neurriok. Besteak beste, giro akademikoan eta politikoaan zuhurrago hitz egin beharko litzateke estatu-administrazio batzuen ustezko jokaera zibikoari buruz. Bai eta zalantzan jarri ere zenbaiten asmoak herritartasun unibertsala eraikitze aldera, jarrera kosmopolitak –batzuetan, eta nahi gabe ere– estatuaren nazionalismoaren mesedean lan egin lezakeelako. ■

« Barregarri geratu dira Frantziaren

liberalismoa eta lotura zibikoak.

Are gehiago, uste dut frantziar batzuen ustezko zibismoaren atzean,

zinismoa baino ez dagoela. Eta,

berriro ere, gogoetarako gaia utzi

digute hartutako neurriok

